

8. jarduera

Entzungailuak aztergai



Josune Mencia

Eskolako soinu-mapak

8. jarduera

ENTZUNGAILUA AZTERGAI

Gure eguneroko bizitzan, maiz erabiltzen ditugu entzungailuak. Baina zer bolumenetan entzuten ditugu? Zenbat denbora?

Eta horrek badu inportantzia. Jakina da, entzungailuen bidez bolumen altuan denbora luzez entzuten egoteak kalteak sor ditzake entzumenean.

Bolumen egokian entzuten al dugu gustukoa dugun musika?

Azter dezagun!



Helburua: entzungailuen bidez entzuten dugun soinu-intentsitatea neurtzea.

Materiala:

- Telefono mugikorra edo mp3-irakurlea.
- Entzungailuak.
- Sonometroa.

Prozedura:

- Ipini entzungailua telefono mugikorrean. Jarraian musika erreproduzitzailea martxan jarri.
- Erreproduzitzailea bolumen baxuan jarri, eta gerturatu sonometroa entzungailura.
- Neurtu soinu-intentsitatea (gelak ixilpean egon behar du).
- Errepikatu prozesua bolumen desberdinak erabiliz.

Emaitzak:

Bolumena	Intentsitatea (dB)

Erantzun galderei:

Zer bolumenetan da soinu-intentsitatea handiena?

Zuk normalean zer bolumenetan entzuten duzu musika? Beraz, zenbat dB jasaten duzu?

Egun arrunt batean, zenbat denbora egoten zara entzungailuak jarrita?

Osasunaren Munduko Erakundeak gomendatutako gehieneko entzute denbora betetzen duzu?

Ezetz bada erantzuna, zer ondorio izan dezake zugar? Zer egin dezakezu hau ekiditeko?

Osasunaren Munduko Erakundearen gomendioa			
dB	Gehieneko entzute-denbora	dB	Gehieneko entzute-denbora
80	8 ordu	103	7,5 minutu
85	4 ordu	106	3,75 minutu
91	2 ordu	109	2 minutu
94	1 ordu	112	1 minutu
97	30 minutu	115	30 segundo
100	15 minutu		